

EGA 2019

Antolamendu arauak

1) Deialdiak

C1 mailako Euskara Gaitasunaren egiaztatzeko azterketak antolatuko dira 2019an Iparraldean.

C1 maila egiaztatzeko probak, deialdi irekiz, bi azterketa-alditan izanen dira: 2019ko udaberrian eta udazkenean.

2) Nori irekiak: baldintzak

Azterketa gaiak bere baitatik edo ikastetxe batean landuz, C1 mailako (EGA) gaitasun-agiria eskuratu nahi duen edozein¹ pertsonari zuzendua zaio, deialdi irekiz, 2019ko abenduaren 31n berantenez 17 urte betetzen dituen unetik; hots 2003ko urtarrilaren 1.a aitzin sortua. Salbuespen bakarra: 2003an sortu baina 2002koen ikasgelan diren kandidatuak.

Azterketan parte hartu ahal izateko 24 €-ko saria ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko.

Azterketa egunean nortasun agiri bat aurkeztu beharko du kandidatuak.

3) Azterketen leku-egunak

2019ko otsailean, EEPko web gunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko egiaztapen dispositiboaren epe eta kokaguneak.

4) Errepikapenak

Kandidatu bakoitza nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko da azterketa bakoitzera.

¹ Antolaketa eta baliabide arrazoiak direla medio, kandidatu kopuru mugatua onartuko da azterketara, baldintza geografikoa kontuan hartuz: frantziar Estatuan sortu, bizi, lan egin edo ikasten ari diren kandidatuak baizik ez dira onartuko.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen kandidatu batek bere azterketa ikusi nahi balu, Batzorde Zientifikoak finkatuko duen data batean egin lezake.

6) Baliogabetzea

A) Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiutzen den kandidatua, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izan daiteke eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

B) Azterketa bururatzean, A puntuan aipatu gertakaria gauzatu dela ikusiko balitz, aztertzaile-taldeak kandidatua azterketatik kanpo uztea erabaki lezake.

7) Azterketaren iragan molde zehatza

Azterketa idatziaren iragan moldea: **2019 C1 Azterketa eredia** dokumentuaren arabera egingen da.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **2019 C1 Azterketa eredia** dokumentuaren arabera egingen da.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu aztertzaile talde baten aitzinean frogatu beharko du C1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragina gaitasunak eskuratu dituela.

Azterketa taldeko batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketara aurkezturikoaren nortasun agiria egiaztatu eta azterketaren alde teknikoa segurtatuko du (izen-deituren hartzea, minutuen neurketa...), besteak kandidatua galdekatuko duen bitartean.